



## AURRERA JARRAITZEN DUGU **Santa Mariako irisgarritasuna hobetzeko**

Katedralean irisgarritasun-neurriak ezartzen jarraitzea, eraikinak duen balio historikoa eta arkitektonikoa kaltetu gabe. Horixe da Fundazioak duela urte batzuetatik hona hartu duen eta etorkizunean ere izaten jarraituko duen helburua eta konpromisoa.

Santa Maria Katedrala bisitatzerakoan, irisgarritasuna hobetzeko urratsak garatzen aspaldi hasi ginen. 2011n, pasabidea irisgarri egiteko jasogailu bat jarri zen, nabe nagusiaren mailatik 4 metrora, eta bisitariak bertatik ibiltzen ziren.

Denborak aurrera egin ahala, lanek aurrera egin zuten, eta pasabide hori desmuntatu egin zen. Ondorioz, karga-jasogailu hori Aitzogile kaleko sarrerara (95. zk.) eraman genuen, eta, era horretan, kriptaren mailarako sarbide unibertsala erraztu zen. Hori guztia osatzeko, hainbat igogailu instalatu ziren, bisitak Katedralaren maila ezberdinetatik egiteko, kriptatik hasi eta kanpaien solairuraino. Gaur egun, lanean jarraitzen dugu irisgarritasunaren arloan, eta hainbat igogailu egokitu ditugu araudi berrira.

Katedrala, ondare irisgarri eta inklusiboaren adibide gisa, Arabako Foru Aldundiak, zehazki Ondare Historikoaren Zerbitzuak, azaroaren 4tik 8ra egindako CEAPAT 2024 topaketan astean aurkeztutako gaitako bat izan zen.

## **Katedrala nabarmendua izan da Araba andaluziarrentzako erakargarri turistiko gisa aurkeztea**

Andaluzia Arabako turismoaren funtsezko merkatua izatera iritsi da, iaz helmuga gisa aukeratu baikintuzten 25.000 bat andaluziarrek. Hori dela-eta, "Zatoz bidaiatzera" kanpaina Sevillan izan da, Lurraldearen erakargarritasun turistikoa aurkezteko, eta, bertan, Santa Maria Katedrala nabarmentzen da.

Sevillan egin da aurkezpen-ekitaldia urriaren amaieran, eta horrekin amaiera eman zaio Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak Araba turismo-eskaintza zabala duen helmuga handi gisa aurkezteko burutu duten kanpainari.

Fundazioaren zuzendaria den Jon Lasak ekitaldi horretan parte hartu du Katedralaren historia eta hiriaren erakargarritasun turistikoan

jokatzen duen papera nabarmentzeko. Era berean, aurkezpenean, lehenik eta behin, "Obretan eta irekita" nabarmendu du, Santa Maria Katedralako bisita gidatuen programa, "beste batzuetatik bereizten dena, urte hauetan guztietan burututako eta oraindik ere jarraitzen duten berrikuntzen bilakaera-prozesua erakusten dugulako". Era berean, Katedrala bisitaztea "bakarra eta desberdina" dela adierazi zuen, esparruko espazio eta maila guztiak bisita daitezkeelako, eta horrek ikuspegi aparta eta osoa eskaintzen duelako.

Hirugarren, teknologia berrien erabilera nabarmendu du, bisiten eskaintzan sartu eta zabaldu baitira; hain zuzen ere, ibilbide birtualak eta 360 graduko bideoak dira, eta bisitatzen



gaituztenei ikuspegi berri bat ematen diete. Ildo horretan, Andaluzia bisitari-igorleen laugarren erkidegoa da; hots, kopuru osoaren %5,5.



## Aterpetxeak, Katedralak eta Bisitarien Zentroak energia-kontsumoa optimizatu dute

**Katedraleannahiz Bisitarien Zentroan eta Aterpetxean hainbat neurri ezartzen hasi dira energiaren kontsumoa murrizten eta optimizatzen laguntzeko. Neurri horiei esker, energia-fakturan aurreztu eta CO2 emisioak murriztu ahal izango dira.**



Kontsumoa optimizatzeko eta emisioak murrizteko prozesua egin ahal izan da Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustatzeko Sailak Fundazioarekin batera egin duen aholkularitza energetikoari esker.

Aholkularitza energetikoa doakoa da, eta, horri esker, kontsumo energetikoen puntu kritikoak detekta daitezke, behar bezala kudeatzeko prestakuntza jaso eta kostuak murriztu argiaren eta erregaiaren fakturretan. Azterketaren emaitzak hainbat neurri planteatu zituen; hala nola, kontratatutako potentzia doitzea, kontsigna-temperatura gradu bat jaitea, erradiadore elektrikoak deskonektatzea erabiltzen ez ziren uneetan, stand-by kontrako erregeletan instalatzea eta abar, besteak beste. Helburua da fakturan %20ra bitarte aurreztzea eta igorritako CO2aren aldetik %50era bitarte murriztea.

Gaur egun, proposatutako neurri horietako batzuk burutzen ari dira, eta emaitzak laster jakinaraziko ditugu.



## Santa Maria plazako putzua

Elizpearen kanpoaldean, Santa Maria plazaren aldetik, zoladura berria gainerakoa ez bezalako materialez egindako marka zirkular bat ikus daiteke. Plazako beste eremu batzuetan bezala, marka bereizi horiek

aurreko garaietako egiturei egiten diete erreferentzia, eta horiek dokumentatuak izan dira Santa Maria Katedrala zaharbertzeko lanen testuinguruan egindako indusketetan.

Horien artean elizpera sartzeko atearen parean dagoen putzua aurkitzen da. Putzu hori 2001. urtean induskatu zuten, eta 1,4 metroko diametroa du. 3,5 metro induskatu bazuten ere, beste hainbat jaisten da kuaternarioko akuiferoan ura hartu arte. Ondorengo azterketen arabera jakin ahal izan da IX. mende inguruan jada existitzen zela.

Putzu horretatik ura hartzen zuen bera zegoen etxe-eremuak eta, ziurrenik, inguruko beste batzuek ere bai. Geroago, Behe Erdi Aroan, Olarizuko kalkarenitazko harlangaitzez apaindu zen (argazkian ikus daitekeen moduan).

Putzua XIX. mendera arte erabili zuten, Katedralean eraikitako kanal askok gutxienez XIX. mendera arte ura ateratzen baitzuten zuzenean barrutik.

*Iturria: "Hiri baten arkeologia eta historia. Gasteizko jatorria (I)". Agustín Azkarate eta José Luis Solaun.*

## Santa Maria European Cathedrals-en XIII. edizioan

Pisa izan zen Europako 2024ko Katedralen topaketaren hiri anfitrioi, urriaren 17an eta 18an. "Ondare Unibertsala: interes kulturalerako ondasun erlijiosoak" izenburupean, katedralen eta leku sakratuen kontserbatzaileek egunero aurrean duten erronkaren inguruan eztabaidatu zuten. Izan ere, alderdi kulturalak eta artistikoak kudeatzeaz arduratu behar dute, kultu-lekuen ondare biziaren integritatea

eta benetakotasuna ez ezik, komunitateetako sentimendu erlijiosoak eta deboziozkoak ere errespetatuz.

Topaketa horretan, **Leandro Cámarak** parte hartu zuen, Fundazioaren bulego teknikoko zuzendariak eta Santa Maria Katedrala zaharbertzeko lanen arduradunak, eta "Gasteiz, Hiru Katedralen hiria" aurkeztu zuen.



PUEDES ENCONTRARNOS EN



AbiertoPorObras



@CatedralVitoria



CatedralVitoria



Katedraldea



@catedralvitoria